

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BUJANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Erroldak jendaurrean jartzea eta kobratzeko moduan jartzea

Kontzejuak, abenduaren 16ko bilkuran, honako hauen tasak ordaindu behar dituztenen 2018ko zerga errolda egin eta onartu du: etxeak edateko urez hornitzearenak, argiteriarenak, auzolanenak, ureztaketarenak, egur sortenak eta Bujandako lursailen errentamenduarenak. Horrela, bada, errolda jendaurrean jarriko da, hamabost egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Bujandako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzean, errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 9. artikularen 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik. Dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete. Horretarako hilabete izango dute, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko aldia 2019ko urtarrilaren 15ean hasi eta martxoaren 15ean bukatuko da, egun biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak 2019ko otsailaren 1ean kobratuko dira kontzeptu guztiengatik, etxeak urez hornitzeko tasa izan ezik, uztailaren 15ean kobratuko baita.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek edozein banku bulegoren bitartez ordaindu ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Bujandako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratuta dagoen banketxeko kontuan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bujanda, 2018ko abenduaren 26a

Lehendakaria

JAVIER LÓPEZ DE LUZURIAGA GARCIA